



Hezkuntza publikoan  
**lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
Otsailak 26ko greba balorazioa

## **EAEko hezkuntza publikoko irakasleen 3. grebak %75eko jarraipena izan du**

**Hezkuntza sailari balizko proposamenak lantzeko eskatzen diogu, grebak  
desaktibatzen saiatzeko behingoz alboratuz**

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuok deitutako **grebak jarraipen zabala izan du**, urtarrilean egindako beste bi greba egunen antzera. EAEko Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko 27.000 irakasle zeuden gaurko grebara deituak.

Sindikatuok batutako datuen arabera, grebak jarraipen zabala izan du, izan ere, deitutakoen %75ak babestu du. Hala ere, beste behin ere, **salatzekoa da Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehiegizko zerbitzu minimoak** direla eta milaka langileri **greba eskubidea ukatu** zaiela eta ondorioz, **greba bera baldintzatua** egon dela. Hezkuntza sailak familiei bidalitako gutunak edota mahai negoziatzaileetan erakusten ari den jarrerak ere, ez dute laguntzen.

Grebaren arrakastaren adibide garbia da EAEko hiru hiriburuetan **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"** lelopean deitutako mobilizazioetan milaka langile elkartu direla. Urtarrilean egin bezala, milaka eta milaka langilek salatu dute EAEn Hezkuntza Sail berria dugun arren, azken urteetako jokamolde berbera dugula mahai gainean: **Hezkuntzako langileen lan-baldintzak okertzen ari dira**, Hezkuntza Sailak erabakiak aldebakarrez hartzen dituelako eta negoziazioak eduki esanguratsu gabe etengabe luzatzen dituztelako.

Urtarrileko grebek eta mobilizazioek bi mahai deitzera eta pausu bakan batzuk ematera behartu dute Jaurlaritzak. Argi dago grebak direla Jaurlaritzak mugiarazten dutenak. **Tamalez, oraindik grebetako eskaerei erantzun gutxi dute balizko proposamenetatik urrun dago.** Astelehenean, bilera batera deitu zituen sindikatuak alde aurretik idatzizko inongo proposamenik bidali gabe eta ahoz. Aldiz, atzo azken uneko bilera batera deitu gintuzten. **Bi egunetan helarazi zizkiguten edukiak ez ditugu nahikotzat jotzen.**

Beraz, beste behin ere Hezkuntza Sailaren asmoa negoziaketak irudikatzea izan zen. **Bereziki larria da Jaurlaritzak, langileen gehiengoa ordezkatzeko ez duten sindikatuarekin,** grebetan milaka langile aldarrikatzen ari diren edukiak jarri gabe **eta langileen %90a ordezkatzeko greba deitzaileen kontra, gutxiengoan akordioa sinatzeko prest agertu izana.**

Hirugarren greba egun honetan ere, irakasleok oso **mezu argiak** helarazi dizkiogu Hezkuntza Sailari:

- 15 urte direla hitzarmena eguneratu gabe; eta aski dela.
- Lan zamak arintzea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzak bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela.
- Ez badago aldarrikapen hauekiko erantzunik grebetan jarraitzeko indarrekin gaudela.





## Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.


Beraz, **Hezkuntza sailari** azken momentuko eduki nahikorik gabeko mahaiak deitzeari uzteko **eskatzen diogu**, grebak desaktibatzeko gutun eta estrategiak alboratzeko eta **eskaera hauei erantzungo dioten proposamenak egiteko**. Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitu eta lan baldintzak hobetu eta baliabideez hornitzea.

**Aipagarriak** dira, gaurkoan ere, **greba babestu duten irakasle kopuru handia** dela eta, **irakas jarduera ia osotasunean geldirik** izan duten ondorengo ikastetxeak:

- **Araban:** Toki Eder Ikastola (%97) Gasteizen, Luis Elejalde-Rogelia Alvaro eskola (%77), Salburua HLHI (%100), Murgia (%91) eta Miguel de Unamuno BHI Gasteizen (%90).
- **Bizkaian:** Arizko ikastola Basaurin (%100), Otxandio (%93), Juan Bautista Eguzkitza Meabe Lemoan (%89), Zeanurin (%100) eta Leioako Ostalaritza Eskolan jantoki zerbitzua etetea lortu dute irakasleek.
- **Gipuzkoan:** Goizeko Izarra Ikastola Mutrikun (%100), Kurtzebarri Aretxabaletan (%100), Zumaia (%95), Katalin Erauso Donostian (%80), Lezo (%80), Erniobea Villabonan (%88) eta Karmengo Ama Pasaian (%83).

Gaurko egunari jarraipena emanez, **bihar ere greba eguna dugu** EAEko hezkuntza publikoko irakasleok, eta **manifestazio zentralizatua** egingo dugu **Gasteizen**, 11:30ean Europa Jauregitik abiatuta.





Mejora de las condiciones  
laborales en la educación  
pública.  
Decididas aquí y ahora.

**Prentsa oharra:**  
**Valoración de la huelga del 26 de febrero**

## **La 3ª huelga del profesorado de la educación pública de la CAV registra un seguimiento del 75%**

**Instamos al Departamento de Educación a que elabore propuestas reales, dejando de lado de una vez por todas los intentos de desactivar las huelgas**

**La huelga convocada por STEILAS, LAB, ELA y CCOO ha tenido un amplio seguimiento**, similar a las otras dos jornadas de huelga celebradas en enero. 27.000 docentes de la enseñanza pública no universitaria de la CAV estaban llamados a la huelga de hoy.


Según los datos recabados por los sindicatos, la huelga ha tenido un amplio seguimiento, ya que ha sido apoyada por el 75% del profesorado. Sin embargo, una vez más, hay que denunciar que se trata de **servicios mínimos abusivos** establecidos por el Gobierno Vasco y que a miles de trabajadores y trabajadoras se les ha **denegado el derecho a la huelga**, por lo que **la huelga en sí ha estado condicionada**. Tampoco ayudan las cartas que el Departamento de Educación ha enviado a las familias o la actitud que está mostrando en las mesas negociadoras.

Un claro ejemplo del éxito de la huelga son las movilizaciones convocadas en las tres capitales de la CAV bajo el lema **“¡Mejora de las condiciones laborales, decididas aquí y ahora!”** han reunido a miles de docentes. Al igual que en enero, miles y miles de trabajadores y trabajadoras han denunciado que, a pesar de que en la CAV tenemos un nuevo Departamento de Educación, tenemos sobre la mesa la misma forma de actuar que en los últimos años: **las condiciones laborales del colectivo de docentes de Educación están empeorando**, ya que el Departamento de Educación toma decisiones unilateralmente y las negociaciones se prolongan constantemente sin contenido significativo.

Las huelgas y movilizaciones de enero han obligado al Gobierno Vasco a convocar dos mesas y a dar unos pocos pasos. Es evidente que son las huelgas las que mueven al Gobierno. **Lamentablemente, todavía quedan lejos las propuestas que respondan a las demandas de las huelgas**. El lunes se convocó a los sindicatos a una reunión sin haber enviado previamente ninguna propuesta escrita y de forma verbal. En cambio, ayer nos convocaron a una reunión a última hora. **Consideramos insuficientes los contenidos que nos han transmitido estos dos días**.

Así pues, una vez más la intención del Departamento de Educación ha sido escenificar las negociaciones, con la intención de firmar un acuerdo en minoría. **Es especialmente grave** que el **Gobierno Vasco haya intentado firmar un acuerdo en minoría** con los sindicatos que no representan a la mayoría de la plantilla, sin poner encima de la mesa los contenidos que miles de trabajadores y trabajadoras están reivindicando en las huelgas y **en contra de los convocantes de las huelgas que representan al 90% del profesorado**.





**Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.**  
Decididas aquí y ahora.

También en esta tercera jornada de huelga, los profesores y profesoras **hemos trasladado mensajes muy claros** al Departamento de Educación:

- Ya basta, 15 años sin actualizar el convenio.
- Que es hora de proponer medidas para aliviar las cargas de trabajo, consolidar y garantizar el empleo público, recuperar el poder adquisitivo, garantizar la salud laboral, el euskera y la coeducación.
- Si no hay respuesta a estas reivindicaciones tenemos fuerza para seguir en huelga.

Por tanto, **pedimos al Departamento de Educación** que deje de convocar mesas sin el contenido suficiente y en el último momento, que deje de lado el envío de cartas y estrategias para desactivar las huelgas y **que haga propuestas que respondan a nuestras peticiones**. Para reforzar la educación pública es imprescindible aumentar la inversión y mejorar las condiciones laborales y dotarla de recursos.

También hoy **son destacables** los siguientes centros educativos que, debido al **gran número de docentes que han apoyado la huelga**, han tenido **paralizada su actividad docente** casi en su totalidad:

- **Araba:** Toki Eder Ikastola (%97) Gasteiz, Luis Elejalde-Rogelia Alvaro (%77), CEIP Salburua (%100), Murgia (%91) y Miguel de Unamuno BHI Gasteiz (%90).
- **Bizkaia:** Arizko ikastola Basauri (%100), Otxandio (%93), Juan Bautista Eguzkitza Meabe Lemoa (%89), Zeanuri (%100) y en la Escuela de Hostelería de Leioa han conseguido interrumpir el servicio de comedor.
- **Gipuzkoa:** Goizeko Izarra Ikastola de Mutriku (%100), Kurtzebarri en Aretxabaleta (%100), Zumaia (%95), Katalin Erauso Donostia (%80), Lezo (%80), Erniobea Villabona (%88) y Karmengo Ama en Pasaia (%83).

Dando continuidad a la jornada de hoy, **mañana también tenemos una jornada de huelga** el colectivo de docentes de la educación pública de la CAV, y realizaremos una **manifestación centralizada en Vitoria-Gasteiz**, que partirá a las 11:30 horas desde el Palacio Europa.

